

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalbatzaren 2026ko apirilaren 16ko erabakiaren laburpena. horren bidez, ikasleen gurasoen elkarteentzako dirulaguntzen 2026rako deialdia egiten da

BDNS (Identif.): 903941.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio-nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/903941>).

Lehenengoa. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen onuradunak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon behar dute.

Laguntza jaso ahal izateko, gurasoen elkarteak Zuiako Udalari zerga-arloan ordaindu beharrekoak, baita Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ere, ordainduta izan beharko ditu eta helburu bereko beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso duen udaletxeari jakinarazi.

Bigarrena. Xedea

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedagogikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarten eta sistemaren beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partiden kargura egingo dira: 326.481.000 (18.000,00 euro) eta 326.481.060 (6.000,00 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 35.000,00 eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Urteko ekaineko azken egun baliodunerarte.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2026ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA